



## EUOPAR INTEGRAZIOARI BURUZKO OSTEGUN FEDERALA

Euskal Herriko federalistek, Euskadiko, Espainiako eta Europako kultura federala sustatzea helburu duten Ostegun Federalen esparruan, bi topaketa berri antolatu dituzte, kasu honetan Europar Batasunaren erronkak aztertzeko. Saioak zuzenean jarraitu ahal izango dira [YouTubeko federalisten kanalean](#) eta txataren bidez parte hartu ahal izango da.

Gure helburua da bertatik Europaren etorkizunari buruzko Biltzarraren lanak egiten laguntzea. Biltzar hori martxoaren 10ean deitu zuten Europako erakundeetako hiru presidentetek: David Sassoli, Legebiltzarreko presidentea; Ursula von der Leyen, Batzordeko presidentea; eta António Costa, Kontseiluko egungo presidentea (Portugali dagokio sei hilean behingo lehendakaritza).

Biltzarra Europar Batasunaren politikari buruzko foro irekia da, eta zabalik egongo da datozen hilabeteetan herritarrek eta EBko gizarte zibileko erakundeek Europaren etorkizuneko norabideari buruzko eztabaidetan parte har dezaten.

### APIRILAREN 22KO SAIOA

#### Europaren etorkizunari buruzko Biltzarra: integrazio federalago baterako aukera

Hizlariak:

- **Eneko Landaburu**

Jacques Delors Institutuko kidea eta Euskal Herriko Federalisten elkarteko kidea ere bai. Eusko Legebiltzarreko diputatua izan zen bere lehenengo legegintzaldian eta Europako Batzordeko Kanpo Harremanetarako zuzendari nagusi ohia da.

- **Maite Pagazaurtundúa**

Eusko Legebiltzarkidea izan da eta gaur egun diputatua da Europako Parlamentuan (Renew Europe-Ciudadanos taldea) eta Askatasun Zibil, Justizia eta Barne Gaietarako Batzordeko presidenteordea.

- **Ramón Jáuregui**

Lehendakariordea eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua, Espainiako Gobernuako Presidentetzatza ministroa eta Europako Parlamentuko diputatua izan da.

**Ekitaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da zuzenean [You Tubeko federalisten kanalean](#), [Angel Landabasok](#) aurkeztuta eta [Luis Miguel Parizak](#) moderatuta, eta 20: 15ean amaituko da.**

Hurrengo saioa maiatzaren 13an egingo da, kasu horretan "**Europaren etorkizunari buruzko konferentzia: gobernantzaren hobekuntza eta gizarte zibilaren parte-hartzea**" izenburupean. Programa eta gonbidatuak aldeaz aurretik iragarriko dira.

Ondo izan, eta gogoratu: twitterren ([@federalistak](#)) eta sarean ([www.federalistak.eus](http://www.federalistak.eus)) ere topatuko gaituzu!